

ALTZA! PORRA



Euskal Herriko
Trikitixa Elkarte
L.G.: SS-418/01

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

2004ko martxoa / 12. zenbakia

ZERAIN DANTZA ZAIN, ARRAKASTAREN BIDETIK

Zeraingo Udalak eta Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak Zerain Dantza Zain ekimena jarri dute martxan. Otsaileko lehen igandean hasi ziren ekimen honekin, bolatokiaren zaharberritze-lanak inauguratu ondoren, eta hilean behin egingo da erromeria Goierriko herririka honetan. Zenbait trikitilari izango dira bertan, eta jendeak dantza egiteko aukera berdingabea izango du. Antolatzaileen arabera, dantza-jaialdi zein trikitixa-saioetan ikusleen dantzarako joera galduz doa. Ekimen honi esker, jendearen parte-hartze eskas horri eman nahi zaio bultzada, Zeraingo eliza ataria dantzaleku bihurtuz. Gainerakoan ere egin dira hainbat saio erromeriak suspertzeko, eta badira, gainera, zenbait plaza, Aristerrazukoa kasu.

Parte-hartzaileei dagokienez, Goierriko trikitixa-eskoletako trikitilariak arituko dira lanean, igandez igande. Beste batzuen artean, honako hauek izango dira: Koldo Iparragirre eta Iban Gurrutxaga, Alaitz Telletxea eta Lurdes Lerma, Xabier Arakama eta Maider Redondo, Amaia Zubeldia, Daniel Oiarbide eta Ruth Arizmendi.

Giroa bizitzeko-edo, inguruko herriko dantza-taldeak ere jarri dira ekimenaren jakinaren ganean. Azken buruan, hauek gidari direla, bateko eta besteko jendea erakarri nahi da trikitixaz gozatuz dantza egitera. Oinarrian euskal dantzak izango dira, baina beste bazter batzuetako dantza-moldeak ere izango dira dantzagarri; baltsak eta polkak, esaterako. Dantzan gozatu eta pixka bat gehiago trebatzeko aukera polita izan daiteke Zeraingoa, alpargatak urratu arte arin-arin aritzeko leku aproposa. Giroa berotzen ezin hobea den Patxi Perez dantza-animatzailea ere bertan izango da, dakienari xaxatzeko, eta ez dakienari erakusteko.

Otsaileko azken igandean, giro kaskarra izanagatik, jende-multzo polita hurbildu zen Zeraina, eta eliza ataria dantzari eta ikuslez bete zen

Lehenengo bi saioetan giro ona nagusi

Illo honetan, 2004an bederatzirako erromeria izango dira Zerainen, igandean guztiak ere, arratsaldeko seietatik zortziak bitarte. Dagoeneko lehenengo bi saioak egin dira, otsailaren lehen eta azken igandean hain juxtu, eta parte-hartze polita izan da nola batean hala bestean. Hurrengo saiorako gonbita, berriz, martxoaren 28rako izango da. Ea udaberriko eguraldi epelak laguntzeko modurik baduen.

Esan bezala, orain arteko bi saioetan giro ezin hobea izan da Zerainen, nahiz eta otsaileko azken igandean eguraldi makurra tokatu. Oro har, adin guztietako jendea animatu da erromerian parte hartzera. Batzuk dantzan ibili dira jo eta su, eta adinean aurrera doazenek begi-belarriak gozatu dituzte petriletik begira. Guztiek ere ondo pasatzeko modu polita deskubritu dute. Patxi Perez dantza-suspertzaileak jendea dantzan jartzeko duen abilezia ere birritan aipatzeko modukoa da. Bere ateraldi eta umoreari esker, tokian tokira moldatuz, dantza eragitea lortzen baitu. Hona hemen, jakin-mina duzuenontzat, Zerain trikitixa eta dantzaz noiz jantziko den: martxoaren 28, apirilaren 25, ekainaren 6, irailaren 19, urriaren 24, azaroaren 14 eta abenduaren 19an. Trikitixaren konpasean dantza egin nahi duena hurbil dadila Goierri aldera lotsarik gabe, Zerain dantza zain dago-eta, azken batean, zuen zain.



EHTE-REN BATZAR NAGUSIA, IAZKOARI ETA AURTENGOARI BEGIRA

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak Batzar Nagusia egin zuen joan den otsailaren 10ean Zarautzen, eta bertan hamazazpi lagun bildu ziren. Hiru gai hauen harian egin zen bilera. Batetik, elkartearen egitura eta estatutuak berrikusi ziren. Bestetik, 2003ko balantzeari egin zitzaion leku, eta, azkenik, 2004rako egitasmo eta proposamenen berri eman zen. Batzar Nagusi honetan bazkideak eta zuzendaritza batzordea biltzen dira, urtean behin.

Zuzendaritza batzordeari dagokionez, egun Joseba Tapia ari da lehendakari-lanetan, eta bi urtez behin egingo da bozketa lehendakari-aldaketarako. Lehendakariorde, berriz, Gema Sistiaga da. Zuzendaritza-batzorde hau beste lagun batzuk ere osatzen dute, ordea. Agurtzane Aizpuru idazkariak, Juanjo Manterola diruzainak, eta mahaikide diren Mixel Lastiri, Maider Urkizu, Xabi Arakama, Koldo Iturbe eta Errando Lopez de Luzuriagak.

Bestalde, aipatu beharrekoa da hainbat probintziatako jendea biltzeko dauden arazoak direla medio, bertako ordezkariekin bilerak egiten direla tokatzen den probintzian.

Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen lan-martxari begira, bi liberatu ditu egun elkarteak. Agurtzane Aizpuru da lanaldi osoa duen liberatua eta Iban Urizar lanaldi erdia duena. Gainera, lanak banatuta dituzte liberatu hauek. Izan ere, elkartearen eguneroko martxa eramateaz, hau da kudeaketa orokorraz, Agurtzane Aizpuru arduratzen da, eta dokumentazio-lanean, berriz, Iban Urizar ari da.



Zarautzen izan zen Batzar Nagusiko uneetako bat.

2003KO EKINTZEN NONDIK NORAKOAK

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak hainbat arlo jorratu ditu iazko urtean, eta azaletik bada ere, horien berri ematen saiatuko gara. Batez ere hiru lan-ildo finkatu nahi izan ditu trikitixa elkarteak: irakaskuntza, dokumentazioa eta hedaketa-lana; betiere lehengo usadio zaharraren eta etorkizunaren zubi-lana bere gain hartzeko konpromisoari sendo eutsiz.

Irakaskuntza

Irakaskuntzari ere eman nahi izan dio garrantzia Trikitixa Elkarteak, eta hainbat saio egin ditu lan-arlo honi ere bultzadaxo bat emateko. Horren erakusgarri nagusi, 2003an lehen aldiz antolatu diren trikitixaren inguruko **Inpernuko Poza jardunaldiak**. Ekimen honen emaitza oso positiboa izan denez, aurrera begira jardunaldi hauekin jarraitzeko asmoa berretsi da. Izan ere, jendearen parte-hartzeari dagokionez, lagun-talde politikak bildu dira, Donostian batez ere. Donostiakoari dagokionez, hogeita hamar bat pertsona izan ziren jardunaldiotan batez beste, eta azken egunean Lukainategi jatetxean egin zen afarian berrogei bat lagun bildu ziren. Gasteizen, berriz, jende gutxiago bildu zen, zazpi bat lagun edo. Bilbokoari dagokionez, lehendik ere esana dugunez, jardunaldiak bertan behera geratu ziren, bertakoek jardunaldiak behar bezala ez bultzatzeagatik. Jardunaldi hauek Bizkaian izandako matxuratxo hori salbu, oro har harrera polita izan dute trikitixaren inguruan gogoeta egiteko baliagarri izan diren saio hauek, eta komunikabideetan ere izan du bere lekua egitasmoak; irailetik abendura bitarte hogeita hemezortzi aipamen egiteraino.

Jardunaldi hauetan hitzaldiak eta mahai-inguruak izan dira. Bai, bederen Donostian. Gasteizen hitzaldiekin konformatu behar izan zuten. Hitzaldien tartean, beraz, orain arteko argitarapen eta lanei ez ezik, aurrera begirako erronkei ere eman nahi izan zaie astindu bat, Mikel Markez kantariaren eta Amagoia Iban kazetariaren eskutik. Eztabaidarako, berriz, mahai-inguruak jo dira formatu egokitzat. Garai bateko trikitixaz jarduteko, Joxe Mari Iriondok egin zuen gidari-lana "Trikitixaz, zenbait gogoeta" mahai-inguruan, eta honako lagun hauek izan zituen hizketarako prest: Juan Mari Beltran, Iñaki Garmendia Laja, Imanol Iturbide eta Joxe Jabier Abasolo

Tiliño. Egungo kezka, erronka eta oztopoen inguruan aritzeko, Jabi Nabarro hartu zuen gidaritzaren lekukoa, "Gaur egungo erronkak, etorkizunari begira" izeneko mahai-inguruan. Solaskide hauek izan zituen lagun: Ixiar Oreja, Anjel Valdes, Iker Goenaga eta Joseba Tapia.

Iaz, ordea, jardunaldiak ez ezik, ikastaroak antolatzearen asmoari ere eman nahi izan zitzaion segida, eta horretarako **Davide Conte** pandero-jotzaile italiarra gonbidatu zen Euskal Herrira. Hartara, bertako usadioak erakusteko aukera ere izan zuen bide batez. Jendearen parte-hartzeari dagokionez, arrakasta handia izan zuen ikastaroak, hirurogeita zazpi lagun behintzat aritu baitziren Davide Conteren esanetara, panderoa jotzeko teknika berriak ikasteko gogo biziz. Gainera, Davide Contek hainbat herrialdetan eskaini zituen ikastaroak. Azken ikastaroaren ostean, afaria egin zen parte-hartzaileekin Lajaren jatetxean, eta oso giro polita sortu zen herri-musikaren kontura.



Iazko ekainean talde polita bildu zen Zarautzen, Davide Conte pandero-jotzailearen ikastaroa zela-eta.

Dokumentazioa

Trikitixaren albisteak jaso eta gordetzeko bidean, arreta berezia jarri zaio hedabideetan esan denari, eta, hori dela bide, urteko **prentsaren bilketa-lana** egin da ahalik eta arretarik handienez. Lan honen emaitza ditugu 2003an gorde eta katalogatu ditugun berrehun eta hamazazpi erreferentzia.

Dokumentazio-lan honetan beste pauso bat ere eman dugu, **Sakabiren omenezko liburua** paratuz. Sakabiren jirabiran Iñigo Aranbarrik egin duen lanak garai hartako trikitixaren inguruko beste zenbait zertzelada ere erakutsi dizkigu. Lan honek izan du, gainera, bere oihartzuna. Elkarreak, esaterako, berrehun eta laurogeita zortzi ale banatu ditu bazkideen artean. Gainerakoan, Durangoko Azokan, esaterako, harrera polita izan du. Bestalde, lan honen ondotik, etorri dira beste ekimen batzuk ere. Esaterako, Azpeitian abenduaren 20an egin zen Sakabiren Eguna.



1970eko maiatzean, Azkoitiko IX. Bertsolari Gazteen Sariketan, Sakabi eta Egañazpi trikitixa eta panderoa jotzeko prest. Aurkezle-lanak Joxe Mari Iriondok bete zituen.

Argazki-bildumari dagokionez, handik eta hemendik ibili gara zer suma, bilduma handitzeko asmoz; eta ahalegin horretan Kutzako Fototekara ere jo dugu, bertatik atera genituen argazkien edizio digitalak lortzeko. Azkenik, erakusketari dagokionez, bertan zeuden argazki guztiak digitalizatu egin dira, betiere digitalizazio-lanari eman diogun garrantziaren erakusgarri.

Hedaketa

Hirugarren lan-ildo bat ere derrigorrezkoa zaio Trikitixa Elkarteari, trikitixa plazatik kalera hedatzeko bidean. Horren baitan, hainbat egitasmorekin jarraitu zuen iaz Elkarreak. Esate baterako, **Altzaporr** bazkideen artean banatzen jarraitu du hiru hilabetero. Hortaz, iaz lau zenbaki jaso ahal izan zituzten bazkideek zein hainbat erakundek (Herri Musikaren Txokoak, Eresbilek, Gasteizko Folklore Eskolak...). Bestalde, esku-orrian ez ezik, edizio digitalean ere izan da. **Triki Albisteak** ere bidali zaizkie maiatzetik aurrera berrehun laguni, hileroko. Guztira zortzi Triki Albiste bidali dira 2003an.

Beste maila batean, profesionalen jarduna errazteko asmoz, lau bilera egin dira, batez beste bederatzi lagun bilduz. **Hator** Aholkularitzakoak izan ziren lehen bisitariak, eta musika talde baten forma juridikoak landu zituzten. Ondoren, **Metak** Disketxeko Jitu eta Zulu izan ziren gonbidatu, eta disko bat argitaratzeko eman beharreko pausoez jardun zuten. Hirugarren bileran, **Miguel Campos** editorea bere lana zein den zehazten saiatu zen. Azkenik, iazko hondar aldera, **Dunboa** Musika Etxeko Jose Mari Lopez soinuaren mantenuaz aritu zen.



Dunboa Musika Etxeko Jose Mari Lopez, soinuaren mantenuaz hainbat argibide ematen. Profesionalen bilkurei dagokienez, iazko azkenekoa izan zen hauxe.

Hedaketa-lanak, ordea, esparru asko hartzen ditu, eta horietako bat jaialdiak dira. 2003ko azaroan egin zen **Nazioarteko Trikitixa Jaialdia Kursalen**, eta harrera beroa izan zuen. Dena den, ETBk Jaialdian egindako lana ez da balekoa izan, audioari oso arreta eskasa jarri baitzioten. Aldez aurretik Trikitixa Elkarrearekin produkzio ondorengo lanetan bi egunetan arituagatik, jaialdiaren lehen emisioa ez zen batere ona izan. Hori gutxi ez balitz, jaialdia bigarrenez aldez aurretik abisatu gabe eman zen, urtarrilaren 24ko gauerdian; pilota-partida baten hutsunea betetzeko aitzakian. Dena den, oraindik ere beste behin eman behar dute telebistan jaialdia, sinatutako kontratuaren arabera.

Durangoko azoka da beste derrigorrezko hitzordu bat, ezagutaraztera emateko plaza onenarikoa. Salmentei dagokienez, aurreko bi urteetan baino askoz hobekak izan dira ezberri gabe. 2004rako prestatutako egutegiak arrakasta handia izan du, esate baterako.

Teknologiaren gorpulean bueltaka, oraindik ere berri samarra den **web guneak** erabiltzaile dezente erakarri ditu; ia hogeita mila bisitari 2003an. Trikitixaren inguruko hirurogeita hamar albiste sartu dira, eta zortzi disko berriren erakusleho izan da. Agendari dagokionez, ia lauhun emanaldiren berri eman da martxotik abendura arte. Web guneak berak eztabaidarako txokoa ere badu, eta bertan hirurogeita sei mezu jaso dira.

PARTITUREN EDIZIOA ETA PANDERO-TEKNIKAK IKASGAI

Trikitixa Elkarreak bi ikastaro interesgarri antolatu ditu. Horietako batean, **partituren edizioa** landuko da, Adolfo Jainaga (Soinu Txikirako Kantak liburuen egileetako bat) irakaslearen eskutik. Encore musika programaren bitartez partitura estandar zein personalizatuak ordenagailuan idatzi eta txukun inprimatzen ikasiko da. Dena den, ikastaro hau egiteko, ez da informatika munduan aditua izan behar, programa bera grafikoa baita. Ikastaroa Eibarren izango da, apirilaren 22-29 eta maiatzaren 6-13 artean; goizeko hamar eta erdietatik hamabi eta erdiak arte. Gutxienez zazpi lagun

eta gehienez hamar lagunentzat dago lekua. Elkarreko bazkide direnek 25 euro ordaindu beharko dute, eta besteek 30 euro. Apirilaren 2ra arte eman ahal izango da izena.

Bigarren ikastaroa **Carlo Rizzo** pandero-jotzaile italiarrak emango du, ekainaren 11 eta 12an. Egun oso bi ikastaro izango dira. Bazkideek 20 euro ordaindu beharko dute, eta gainerakoek, berriz, 25 euro. Izena emateko epea ekainaren 4an bukatuko da. Ikastaro hauetan parte hartzeko, Elkartera deitu (943832828) edo idatzi (trikitixa@trikitixa.net) besterik ez duzue egin behar.

HAUSPO ZAHARRAK



Ibiñarrietan, Zestoa aldean, 1949an eginiko erromerian goietara igota ageri dira trikitilariak. Bittarte eta Mardu ari dira dantzazten, Santa Kruzetako erromeria dela-eta. Jende andana biltzen zen erromeria honetan, galako arroparekin jantzita. Kobratzeko sistema ere bitxia zuten garai hartan, txapela pasatuz gero, diru faltsua biltzen baitzuten. Hori dela eta, mutilek bakarrik ordaintzen omen zuten, eta kobratzaileak buru zuriko orratza eta kortxo zati bat jarri nabarmentzeko. Bittarte zumaiarraren emazteak prestatzen zituen kortxo eta orratzak. Bestalde, erromeria honetan, dantza askean zein lotuan aritzen omen ziren, eta hainbeste mugimenduk eragindako eztarri lehorra freskatzeko, tabernan saltzen zuten limonada eta ardoa baliatzen zuten.

KALEJIRAN

-M-n Ezten taldeak, Amaia Oreja eta Kristina Solano trikitilariak osatuak, agur esan digu. Otsailaren 14an eman zuten azken kontzertua Elizondoko Futbolin tabernan. Euskal tradizioa eta pop musika ezin hobeki uztartzen jakin duen talde honek ibilbide labur samarra egin du. Izan ere, beren lehen eta azken diskoa, taldearen izen berekoa, 2001ekoa da. Guk, besterik ezean, beren diskoarekin gozatuko dugu, euren abestiak gogora ekarriz.

-Imuntzo eta Beloki, batetik, eta Epelde eta Larrañaga, bestetik, disko berriak ateratzekoak dira. Imuntzo eta Belokik grabatua dute dagoeneko, eta hilabete honen bueltan ikusiko du argia Ganbaran bai (Urolako Trikitixa) lan berriak. Beren azken diskoa 1999koa dugu, Louisianara noa izenekoa. Oraingo lan hau bikotean ateratzen duten bosgarrena izango da.

-Epelde eta Larrañaga bikoteari, berriz, lan luzexeagoa geratzen zaio. Izan ere, hilabete honetan sartuko dira estudiora, grabazio-lanak egitera, eta udaberri bete-beterako espero dute lana kalean. Bikote honek bi disko egin ditu orain arte. 2001ean azkena, Noiz arte izenekoa. Orain hamahiru pieza berriz osatutako lana argitaratu arte zain egotea tokatzen zaigu.

-Xabi Aburruzaga trikitilari bizkaitarra arduratu da maiatzaren 30ean Leioan ospatuko den Ibilaldia jairako kantu ofiziala egiteaz. "Alkarregaz heldu" abestian hainbat estilo biltzen direla dio egileak berak, baina berak hain berezko duen folka ere nabarmentzen da. Kantari-lanetan, Eñaut Elorrieta (Kenzazpi), Afrika Bibang (Etsaiak eta Fermin Muguruzaren kolaboratzaile) eta Roberto Mozo (Zarama) aritu dira. Abestiaren letra, berriz, Fredi Paia bertsolariak egin du. Kantua biltzen duen lana eskuratu nahi izanez gero, kalean da dagoeneko.

GALBAHEA

-Iker Goenaga (Berria, 04-01-11): "Elgeta ezagutuko nukeen gustura, trikitilarion maisua".

-Xabier Aburruzaga (El Correo, 04-01-13): "Etorkizunari begira trikitixa sasoi onean dagoela esango nuke. Bi mila ikasle baino gehiago ditugu gaur egun, bere kasa ikasten dutenak aintzat hartu gabe. Ikasle hauen artean motibazioa ondo landuz gero, urrun irits gaitezkeela iruditzen zait".

-Joseba Tapia (Berria-04-01-31): "Leitzara joan nintzen gure osaba Eleuteriorekin urte zahar gau batean, gaupasa egitera. Eta harrigarria zen erromeria bera, jendeak nola pasatzen zuen trikitixarekin, edozer jota ere dantza egiten zuten! Ikustekoa zen festa lau pareten artean nola burutzen zen. (...) Izugarritzko aguantea zeukaten dantzariak! Gerora ere nik jo izan dut ordubete gelditu gabe, eta kapaz ziren dantzan jarraitzeko".

AGENDA

MARTXOA

Kepa Junkera

13: Barañainen (N).

Trikizio taldea

20: Deuston (B), txosnetan, 23.00etan.

26: Pasaia (Gipuzkoa) Pasaia Lezo Lizeoan, 17.00etan.

Trikizio taldea

20: Deuston (B), txosnetan, 23.00etan.

26: Pasaia (Gipuzkoa) Pasaia Lezo Lizeoan, 17.00etan.

Gozategi

21: Bilbon (B), Foyer Teatro Arriagan, bertsolari eta dantzariekin batera.

31: Leioan (B), EHUko Areto Nagusian.

Tapia eta Leturia

26: Veronan (Italia).

Alaiz Telletxea eta Lurdes Lerma + Patxi Perez: Zerain Dantza Zain

28: Zerainen (G), eliza atarian, 18.00etan.

APIRILA

Joseba Tapia. "Agur Intxorta Maite"

2: Andoain (G), Bastero Kulturgunean.

Trikizio

3: Iruñean (N), Donibane auzoan, 17.00etan.

17: Otsagabian (N), 23.00etan.

Hiru buru. Joseba Iparragirre, Ander San Jose eta Pepe

9: Les Borges Blanques-en (Lleida),
Café Slàvian, 23.00etan.

Amaia Zubeldia, Daniel Oiarbide eta Ruth Arizmendi + Patxi Perez: Zerain Dantza Zain

25: Zeraingo (G) eliza atarian, 18.00etan.

MAIATZA

Tapia eta Leturia

9: Senperen (L), Herri Urratsen.

EKAINA

Trikizio

4: Las Carreras-en (B), 23.00etan; 19an
Aulestian (B), 23.00etan.

28: Eskoriatzan (G), 23.00etan.

Xabi Arakama eta Maider Redondo + Patxi Perez

5: Zerainen (G), eliza atarian, 18.00etan.